


ttüpi-ttapa

1996ko ekainak 6 • 183. zenbakia

Elkarrizketa

Emma TOMASSONE:
Landa Etxeen federazioak
lehendakariordea



NAFARROAKO MENDIALDEA
BALITEKE ZABORRAK
IRUNERRIRA ERAMATEA

KENDU ZAMAK GAINETIK

RENAULT EXPRESS
COMBI RL 1.9 D 55 C.V.



Renault Express Combi 1.9 D -arekin, zama ugari kenduko dituzu gainetik. Bere **55 CVko potentzia eta bere prezio harrigarriari esker: 1.595.000 pezeta.** Eta gehiago lasai zaitezen, Express Combi - ak **Blaupunkt 3005 irratikaseta; 5 abiadura; 5 eserleku; sabai irekigarria; argiak baretik erregulatzeko mekanismoa; atzeko aulkia tolesgarria eta kargalekuko zola estaliak** ekartzen ditu.

1.595.000

Pta.



RENAULT
GIDATZEKO
PLAZERRA

PEDRO GARMENDIA, S.A.
Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 ELIZONDO

TALLERES SANTESTEBAN
Leitzako Errep., kma - Tfnoa. 45 02 82 DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.
Irun - Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 BERA

ttipi-ttapa

**Ameriketara
bidaltzea
erdi**

**prezioan
gure
bitartez**



*Interesatua egon ezkerro, deitu
Iparraldetik deitzeko 19-34-48
Hegoaldetik deitzeko 948- **631188**ra*

DATUAK

❖ Emma Tomassone jatorri italiarrekoa da eta Anizko Jauregiako etxekoandrea da.

❖ Nafarroako Landa Etxeen Federazioko lehendakari ordea da gaur egun.

❖ Nafarroan 272 Landa Etxe daude.

Erronkari, Saraitzu eta Baztan alde dira landa etxe kopuru haundiena duten eskualdeak.

❖ Landa Etxeen Federazioak eta Nafarroako Gobernuak bultzaturik, Kalidade Karta eta Prestakuntza ikastaroak jarriko dituzte martxan orain.

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
AITOR AROZENA

Emma TOMASSONE:

«Landa Etxeen federazioak kalidadearen aldeko apostua egin du»

NAFARROAKO LANDA ETXEEN FEDERAZIOAK KALIDADEARI KASU BEREZIA EGITEKO APUSTUA EGIN OMEN DUZUE?

Bai, halaxe da. Lehenik, Nafarroako Landa Etxeen egoera kalidadeari dagokionez zertan dagoen jakiteko, *Kalidade Karta* deitzen dena egin berri da. Horretarako, enpresa espezializatu bat ibili da etxez etxe eta aztertu egin du bakoitzaren egoera.

KALIDADEAZ HITZEGITEN DENEAN, ZER ULERTU BEHAR DA?

Kalidadeak ez du luxua erran nahi. Kalidadea da saldu eta eskeintzen diren zerbitzu eta baldintzak benetan errealidadean daudenak izatea, bisitariek ez dezatela ustekaberik hartu. Eta horretaz hitzegiteko, egun osoko bilera egin genuen Oronozko San Martin Eskolan federazioan gaudenok.

ETA NOLAKOA DA ESKEINTZEN DEN KALIDADEA?

Bueno, enpresa horrek etxeetara bidali du egin duen azterketaren analisia. Bakoitzak badaki zer erran dioten. Dena dela, kontuan hartu behar duzu berriki



arte Landa Etxeen aferra hau bakarrik Nafarroan genuela, baina orain, bertze herrialdeetan ere hasiak dira eurenak jartzen, eta kompetentzia haunditzen ari da egunetik egunera. Horregatik bada, orain gure apostua ez da kantidadea, kalidadea bai zik. Orohar kalidade

ona dagoela uste dugu, baina halere, hobetzen ahal da.

HORREN BERRI EMAN ZENUTEN ORONOZEN EGIN ZENUTEN BILERAN?

Bai. Enpresakoek argibideak eman zituzten, jendeak galderak egin zizkien, eta nire ustez, jendeak ulertu zuen eta ongi hartu zuen. Dena dela, karta hori egitea lehenbiziko pausua da, eta orain, bigarren pausua hasiko dugu; batetik komertzializazioa, eta bertetik, klasifikazioa, bai-

nan ez hotelei bezala kategoriak jarritz, zerbitzuen araberrako klasifikazioa baizik. Nolanahi ere, klasifikazioaren kontu hau hobeki aztertu behar dugu.

ETA GUZI HORREKIN BATERA, PRESTAKUNTZA IKASTAROK ERE PRESTATU DITUZUE?

Jakina. Kalidade Kartaren barnean sartzen da prestakuntza, batez ere turistei harreraregia egiten ikasteko. Orain Aezkoan egingen dute eta hemen iraila aldera, edo.

» *«Berriki arte Landa Etxeen aferra hau bakarrik Nafarroan genuen, baina orain, bertze herrialdeetan ere hasiak dira eurenak jartzen, eta kompetentzia haunditzen ari da»*



BEINTZA-LABAIENGO
ZABOR ERRAUSGAILUA

Leitza-Larraun eta Saraldean izan ezik, gaur egun eskualdean sortzen diren hondakinak hemen bertan tratatzen dira zabortegi kontrolatu eta labe errausgailuen bitartez. Hau, itxura guzien arabera, ez dirudi luzerako kontua izanen denik. Dagoeneko Baztango Udalak eta Malerreka eta Bortzirietako Hiri Hondakin Mankomunitateak hasiak dira aztertzen euren zaborra Nafarroako beste zabortegietara eramateko dauden aukerak.

URTE GUTIREN BURUAN BALITEKE ESKUALDEKO ZABOR GUZIA KANPORA BIDALTZEA

Zaborrarekin zer? Azkeneko urteotan hameka eztabaida, azterketa eta buruhauste sortu duen galdera da hauxe, batez ere, Baztan eta Malerreka aldean. Izan ere, batean zein bertzean dauden labe errausgailu eta kontrolatu gabeko zabortegiak salatuak izan dira erakunde des-

berdinetatik, baita Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Departamentutik ere. Bistan da, hortaz, aterabideren bat lehenbailehen bilatu beharko diotela arazoari Baztan eta Malerrekako agintariek. Bortzirietako egoera hain larria ez izan arren, hor ere zerbait pentsatu beharko dute luze gabe. Zabortegia duela sei urte egin zuten, eta hasiera batean 20 urteko bizi-

iraupena izatea kalkulatu bazen ere, dagoeneko bere kapazidadearen erdia betea omen dauka.

'COOPERS & LYBRAND'EN PROPOSAMENAK

Nafarroako Gobernua egiten ari den *Hiri Hondakin Gidaritza Plan*ean kontuan hartua izateko, enpresa honek *Nafarroako Hiri eta Industri Hondakin*en gaur egungo

egoera eta Bilketa eta Tratamendu beharren aurrikuspena izeneko azterketa egin zuen haren enkarguz. Baztan, Bortzirriak eta Malerrekari dagokionez, bertz alternatiba planteatzen ditu, eta hoietatik lautan labe haundi bat eraikitzea ageri da, eta bosgarren alternatiba modura, Coopers & Lybrand-ek Oronoz-Mugairin Zaborren Trasferentzia Biltegia egitea

planteatzen du. Gauzak horrela, badirudi azken aukera hau seriozki aztertzen hasiak direla Baztan, Malerreka eta Bortzirietako udalagintariek, eta dagoeneko, Iruñerriko Mankomunitatearekin harremanak hasiak dituzte hemengo hondakinak harat eramateko.

Nolanahi ere, oraindik ez da segurua eztabaidatu ondotik Iruñerriko Mankomunitateak baiezko erantzuna emanen duenik. Baiezkoa emanen balu, bi aukera irekiko liritekeen: batetik, hemengo udal eta mankomunitateak hangoaren partaide bihurtzea, eta bestetik, partaide ez izatea bainan zaborrak harat eramatea eta horregatik ordaindu beharreko tasak ordaintzea. Kontsultatu ditugun informazio iturrien arabera, bigarren aukera lehenengoa baino gertagarriagoa omen da.

ZABORREN

TRANSFERENTZIA BILTEGIA

Definitiboki aukera hau gauzatzekotan, eta Coopers & Lybrand enpresak egindako estudioaren arabera, Nafarroako Gobernuak zaborren kudeaketari dagokionez aurrikusia duen Eremu Antolaketa ere aldatu egingen zen, eta Iruñerriak Ultzama, Bidausi, Agoitz, Saraitzu, Zangoza, Araitz-Betelu, Leitza, Larraun, Sakana, Baztan, Bortzirietako eta Malerrekako hondakinak bilduko zituen Gongorako Zaborategian. Osotara 341.974 biztanle duen eremua eta urtean 127.405 zabor tona sortzen duena.


Horrekin batera, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako udal eta mankomunitateek Oronoz-Mugairin lurra erosi eta obra egin beharko zuten Zaborren Transferentzia-rako Biltegia egiteko. Biltegi horretan, eremuko zabor guziazamatu, trinkotu eta kamioietan kanpora bidaltzeko presatu egingen zen.

Gaur egun egiten den bilketa selektiboa


	PILAK	PAPERA KARTOIA	BEIRA	INDUSTRIA HONDAKINAK	BASERRIETAN
BAZTAN					
BORTZIRIAK					
GOIZUETA - ARANO					
LEITZA - LARRAUN					
MALERREKA					
SARALDEA					

Gaur egun dauden tratamendu sistemak eta kokapenak

	Kokalekua	Sistema
BAZTAN	Bagordi (...)	Labe Errausgailua
BORTZIRIAK	Bera (Intzola)	Zaborategia
GOIZUETA	Goizueta	Zaborategia
LEITZA	Iruñerria (Gongora)	Zaborategia
MALERREKA	Beintza-Labaien	Labe Errausgailua
SARALDEA	Senpere	Labe Errausgailua



Litekeena da urte gutiren buruan eskuadean sortzen diren zabor guziaz kanpora bidaltzea



Malerrekako Behinpin taldeak Karkar-eko Birziklatze eta Konpost Zentrura bisita antolatu du ekainaren 15erako

«Irtenbide kaxkarra arazo larri batentzat». Halaxe kalifikatu du Behinpin-ek zaborrak Gongorako Zaborategira eramateko dagoen aukera. Horrekin batera, «kaxkarra eta garestia» ere badela gaineratu du, «gaur egun zaborren tratamenduak sortzen digun kosteari, garraioa eta bertidoaren kostea ere gehitu beharko baitzaio, Oronoz-Mugairiko Zaborategia egitea kostako dena ahaztu gabe. Zenbat?»

Galdera multzoa plazaratzeko ere aprobetxatu dute: «Momentuko bide errazenak ez dira onenak beti. Gongora betetzean, abudo martxan ho-

netan, noraino eraman beharko dugu? Ze preziotan? Zergatik ez ahal den guziaz probextu bertan eta zabor produkzioa murriztu? Zein da birziklapenak sortzen duen mamua?»

Behinpinekoei irtenbide logiko eta onena iduritzen zaie Karkar-eko Zentruan egiten den gestioa. Horregatik, hura ezagutzera joateko proposamena luzatu dute ekainaren 15erako, eta Malerrekako herri gehienetan, izena emateko aukera jarri dute. «Ikusi, ikasi eta erabaki! —diote— Zenbait politikoren eskutan utzi behar ote dugu berriz ere guri dagokigun asuntza» gaineratuz.

EEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.200 ALE

GITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXEO PLAZA, 1

31780 BERA

TFNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-

en. **Publizitatea:** Miren Kar-

e Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

zuzena, Joxemanuel Irigoien.

Ministrazioa: Amaia Goia.

Erredakzio taldea: Pello Ape-

txe, Juainas Paul, Kristina

an, Bittori Telletxea.

Erriemaileak: Joseba Azpiroz,

eban Arozena, Juana Mari

zar, Ainhoa Mutuberria, Iban

si, Txema Aldabe, Pello Etxe-

txema Urroz, Patxi Otxan-

ena, Ixabel Maia, Josune Etxe-

te, Pablo Mendiburu, Joseba

rabide, Alizia Olaizola, Margari

enike, Koro Irazoki, Mixel

endiain, Jacqueline, Elixabet

ria, Garbiñe Maiz, Oskar

perena, Alberto Sansiñena,

o Apezetxea, Aitor Arozena,

ntina Boan.

Erredakzioaileak: EHNE Nafa-

ri, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-

ri, Joxe Javier Etxeberria,

ntxa Zabala...

Erredakzioa: Graficas Ona.

Erredakzioaileak: tipa-
tipa ez du bere gain har-

er derrigorrez, aldizkarian adie-

tako erranen eta eritzien eran-

izunik.

Erredakzioaileak: Bera,

za, Goizueta, Areso, Baztan,

azubi, Zugarramurdi eta

tako udalak, Bortzirietako

skara Mankomunitatea,

errekako Zerbitzu Mankomu-

ntea, Zugarramurdiko Akelarre

arte...



aldizkari honek Nafarroako
bernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Errepide moldatzeak, zeren arabera markatu behar dira lehentasunak?

Industria, trafikoa, Behobian autopista... aski argi dago, ezta!



Manuel IRIARTE
Berako alkatea

Ekainaren 8an etortzeko da Luis Ibero Herri-lan kontseilaria Bertizera zonako alkatekin hitzegitera. Ikusiko dugu ze ateriko den hortikan, bainan nire ustez, arras logikoa da ez baldin bada karretera guziak moldatze-ko dirurik, lehentasuna Behobia aldeko bideari ematea. Autopista hortxe dago, Pasaiako portua ere, zonako industria guzia Bortzirietan dago, abudo akautuko den Alkaiagako industrialdea, trafiko guzia hortik pasatzen da... arrazoi pila guzien gainetik lehentasuna bide honeri emateko. Eta onean ez bada ateratzen, txarrean ateri beharko du.

Hortaz, orain negoziatu egin beharko dugu Nafarroako Gobernuarekin, eta presionatu maila guzietan, eta ez badigute kasu egiten Europara jo beharko dugu. Hori ezin da horrela gelditu. Esnea ematen duen behiengana jo beharko dugu. Kontseilariak, Bortzirietara etorri zenean, zera erran zuen 'ez dugu dirurik'. Ba, nonbaitekateri beharko da. Honek ezin du horrela segitu, horretaz kontzientzia hartu behar da.

Lehentasunak marka- tzerakoan, erabakia politikoa izanen da



Anastasio NAGORE
Otxango Garraio Agent.

Garraiolarien ikuspegitik, argi dago eskualde-ko industria guzia Bortzirietan dagoela kokatua, Irun aldeko bidean, eta hortaz, lehentasuna 121-A errepideak behar dela izan. Eta ni baztandarra naiz eta erran dudanak problemak sortzen ahal dizkit, bainan tira... inoiz ahantzi gabe 121-B errepidea ere moldatzeko premia gorrian dagoela.

CSI da eskualdeko enpresarik haundi eta indartsuena, eta Lesakan mantendu nahi badugu, errepidea berehala moldatu beharra dago. Logikak hala agintzen du.

Nolanahi ere, ez da ezagutzen alternatiba batek eta bertzeak teknikoki, ekonomikoki edo ingurua kaltetzeari dagokionez suposatzen duena. Ikusi beharko zen. Bainan tira, ez nago konforme Baztan baka-rrik turismoari begira garatu behar denik diotenekin. Baztanera ere industria ekartzen saiatu beharra dago.

Edozein kasutan ere, sinetsita nago erabakia erabat politikoa izanen dela. Are gehiago. Iruñean, EAk hartuko du erabakia nire ustez.

Saiakera bateratzai- leak mesedegarri dira helburuak lortzeko



Gloria AGERRI
Eusko Alkartasuna

Nire ustez, gure eskualdea Euro-
pari begira es-
trategikoki prestatu izateko oinarria da errepide azpiegi-
tura, batez ere Merkataritza, Industria eta Turismoaren-
tzat eta Alkaiagako industri-
aldearentzat. Niretzat N-121 errepidea oinarritzeko elemen-
tua da eremu honek etorki-
zunean bizirauteko. N-121 A izanen da beti lehentasuna duena, arrazoi aunitzengatik: industria gehiena hortxe dago; Alkaiagako industrial-
dea ere interesgarri bihurtu behar zaie EAE eta Iparraldeko inbertsoreei; automobil eta kamioi gehienak hortik ibiltzen dira...

Halere, solidarioak izan behar dugu eta N-121 B errepidea ere moldatzea eskatu. Bestalde, Nafarroako Gobernuan ez dago inolako akordio-
rik Dantzarineako bideari lehentasuna ematen dioenik. Hemendik ahaleginak eginen ditugu goian aipatutakoa, Gobernuak berea egin dezan, nahiz eta jakin limitazio ekonomikoek zailtzen dutela obrak nahi bezain abudo egitea.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



Aurten eginen ez den Nafarroako Eskolarteko Bertso Txapelketari

Nafarroako Bertso Eskolak

Neurria: Hamarreko Haundia

Bertsolaritzak eskoletatik hartu behar du indarra hamar urtetan deusezetikan ia jo zuen hamarra lantzen genuen bertso papera bertso berri, bertso zaharra txapelketarik ez dugu aurten ta sortu digu negarra derrigor al zen zuhaitz gazteak ondotik moztu beharra?

Herri batzutan bertso eskolak egin dute lan polita haurrak dotore saiatzen ginen beheko mailetan hezita Gobernuaren kontzientzi eza guk horrela ikusita lehen egindako lan hori dena orain hutsean utzita bertsoa ere landu behar da txikitatikan hasita.

Zubieta Itoitzen pare?

Beti gustora irakurtzen ditut Ainhoak TTIPI-TTAPARA bidaltzen dituen berriak, herrian gertatzen diren zenbait gauza ikasten bait ditut.

Azkeneko berrietan Ditziloko erreka afera aipatzen digu. Herritarrak informatzea bere asmoa dela pentsatzen dut, baina idatzia irakurrita zer arrajo egin nahi duten horko erreka urarekin jakin gabe gelditu naiz.

Gainera, herriko alkateak ere deus ez dakiela ematen du. Denak badakigu gure alkatea ihizturia dela, ona gainera, baina ezusteko bat izan da jakitean azken aldi honetan ingeniario edo topografoak harra-patzen ibiltzen dela.

Askok bagenekien gure alkate jauna ez zela sobera azkarraren udaletxeko aferetan baina ez enteratzera ze proiektu egiten ari diren Ditziloko urarekin bere partetik utzikeria dela iduritzen zait. Nork informatuko gaitu berak ez badaki ze krisito pasatzen ari den?

Udalak informaziorik ez badu, herritarrak saiatu beharko dugu han edo hemen ikasten zer dabilzan 'lapur horiek' Ditziloko alderdi horretan, eta informatu, behingoz, ura eraman nahi duten edo mendi hortako urrezko minaren atzetik dabilzan. Herriarentzat afera honek garrantzia handia duela uste dut baina beldur naiz lehengo egunean batek esan zidana pasa-

IRAKURLEAK MINTZO

tuko dela: Arrazoko pankartari begira egonen gara eta halako batean haize zakarren bat etorriko da eta pankarta eta gainerakoak eramanen ditu eta geldituko gara ez juizio eta ez benefizio.

Dena den, nor maria santisima denunziatu du udaletxeak ez badaki nor den etsaia. Misterioak zailak izaten dira ulertzeko baina kontatzen digun pelikula hau ere ez da bategere erraza.

Ez naiz batere harrizten herri norbait egotea afera hau Itoitzen pare jarri nahian ibiltzea. Ez nuke nahi preziskiki Zubieta periodikoetan agertzea Itoitzen modura arrazoi askorengatik.

ZUBIETA INGENIERO BAT
'DE ATAKAS Y ERREKAS'



Xan Urbistondo, euskaltzale eta abertzale fina omenduz

Oso egun trixtea eta iluna argitu zaigu gaur, Xan. Gaur goizean TTIPI-TTAPA irakurtzen ari nintzela jabetu naiz zuri gertatutako ezbeharrak. Atsekabe honen aurrean ongi baino hobekiago merezia duzun gorazarre xume hau egitea eta eskaintzea besterik ez zait bururatu. Haatik jakin badakit zu ez zarela omenaldizalea, eta ez duzula sobera gogoko izanen ni honela ihardutea. Barkatu beharko nauzu laxokeri hau

(zuk erranen zenuen gisan) Xan; baina jakizu ezin izan dudala ezkuta zuri gertatutakoak sortu didan samina; eta behar nuela lehertu nolabait... Guretzat ez zara inoiz hilko lagun, baina fisikoki gehiago ez zaitugula ikusiko pentsatzeak xehatu egiten nau erdiz erdi. Dolua da nagusi nagusi ene barne erraietan; zu bezalako adiskide fin eta prestua gaitzen deanean sortzen den dolumin eta nahigabe garratza.

Oraindik ezin sinetsirik nago utzi gaituzuna (halere zure ari-ma gurekin dago) baina zure tamaina eta osotasuna sobera haundiak dira errealtate garrantz hiru ukatzen ibiltzeko.

Biziki triste uzten gaituzu Xan, hori horrela ez denik ezin erran; baina halere ez gara gelditzen burumakur. Zuk utzi diguzun ondarea zutik atxikiko dugu, eta gure hitza eta bermea baduzu Euskal Herri aske eta euskalduna ikusi arte borrokatuko duguna. Zure grina eta ametsa gure egiten ditugu Xan, eta hori egia bilakatzen den egunean elkartuko gara berriro zuk hainbeste maite zenuen euskal besta erraldoia egiteko! Egun horretan bertsozik ez da faltako Xan! Ezta pilota partidu eta trikixka jolerik ere, ez horixe! Adiorik ez Xan! Adiorik ez! Oharra: Bihoazkie gure doluminik sentikorrenak bere familia eta lagunei.

ERROTA



LESAKA

Bipi, termita, sits eta beste intsektuen kontrako tratamenduak egurrezko egituretan.
Aholkularitza tekniko: espezien identifikazioa eta proiektuak egiten ditugu.

Tel. (948) 13 05 26
 Ezkazabal Plaza, 8 - 2.B.
 31600 BURLATA
 Tel. (943) 3712 04
 Buenos Aires aldapa, 12
 20160 LASARTE

Tratamendu garantizatuak • Aurrekontua konpromezurik gabe



Nafarkaria 96-V-24

«Erakusketaren helburua herriari tresna horiek eta euren erabilera ezagutarazi, baita gaur egun erabiltzen ez den izen asko gogora ekartzea da».

Itziar **ALTZELAI** eta Jaione **ASTIBIA**
Leitzako Kultur Taldekoak
Nafarkaria 96-V-24

«Nire mundu ikuskera madrileño baten berdina bada, bakarrik euskarara itzulia, zertarako behar dut nik euskara? Hizkuntza batek behar du berezitasun kultural bat, prezeptzio bat bere ingurua, bere lurra eta bere historiarentzat»

Patziku **PERURENA**
Leitzarra
Diario de Noticias 96-V-28

◆ **Sortzez baztandarra, handik honat ibilia... Nongoa sentitzen haiz?**

◆ Aniztarra.

◆ **Asteburu baterako planik onena?**

◆ Lagunekin abenturako kirola egitera joatea.

◆ **Kirola, turistentzat edo bertakoentzat?**

◆ Denentzat, baina zoritxarrez gurean gehienak kanpokoak izaten dira. Hemengoak ez dira enteratzen ere.

◆ **Euskal Herriko kirolaririk onena?**

◆ Indurain, duikabe.

◆ **Ezagutzea gustatuko hitzaidakeen leku bat?**

◆ Amazonia.

◆ **Eskalada egiteko leku polit bat?**

◆ Hemen inguruan Etxauri.

◆ **Zer da arriskutsuagoa, erreka 'rafting' egiten jeitsi edo futbol partidua jokatzeko?**

◆ Futbol partidua lesionatzeko arrisku haundiagoa du. Erreka bakoitzaren mailaren arabera jeitsi behar dira.

◆ **Nor lotuko huke eta zubitik behiti bota 'puenting' egin dezan?**

◆ Galindo, eta buruz behiti errefreskatzen utzi...

◆ **Oraindik egin ez duken eta egitea gustatuko hitzaidakeen kirola?**


◆ Parakaidismoa.

◆ **Hire buruz gehien gustatzen zaikena?**

◆ Egiten dudana sinestea.

◆ **Eta guttien?**

◆ Jendeari eman nahi diodan mezua gaizki transmititzea.



Mattari ALTZUARTE
Bidasoa Kultur Zerbitzuak
Anizkoa

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin Irazoki (fisioterapeuta)

✂ **MASAIA:**

- Minerako eta zirkulaziorako
- Zerbikal edo garondokoa eta lunbarrak
- Hanka eta besoetan

✂ **BIZKORTZE ARIKETAK:**

- Trafiko eta lan istripuak
- Kirol lesioak
- Belaun eta kaderako protesiak

Tel. 631391 - 908.576388
Eztegara 20, behea • **BERA**

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - **BERA**

FUNERARIA ZERBITZUAK

DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • **LESAKA**
Tfnoa: 45 04 75 • **DONEZTEBE**

Bera

Musika Eskolakoak bikain Euskal Herriko Txistulari lehiaketan

Iñaki Irazoki, Joseba Baleztena eta Aitor Irazokik lehen postuak eskuratu dituzte 16 urtez behitiko mailan

KRISTINA BOAN

Maiatzaren 4an Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan burutu zen Euskal Herriko Txistulari elkarteak antolatutako lehiaketa. Txistulariek *Gasteiz* derrigorrezko kantua ondotik, bertze bat jo behar zuten, beraiek aukeratutako laguntzaileekin. 16 urte arteko mailan, Isidoro Fagoaga musika eskolako Iñaki Irazokik lortu zuen lehen saria. Lan librean *Bedaio* eskaini zuen, Iñigo Villanueva, Eneritz Mitxelena eta Mikel Telletxearekin batera. Maila berean hirugarrena Joseba Baleztena izan zen. Aiala Zubieta eta Begoña Rudi izan zituen laguntzaile *Leitzako Ingurutxo*a kantuan. Laugarren saria berriz, Aitor Irazokik eraman zuen. Lan librean *Nere herriko jaiak* aukeratu zuen eta Leire Garcia, Mikel San Jose eta Inazio Agararen laguntza izan zuen.



Iñaki Irazoki, Joseba Baleztena eta Aitor Irazokik lehenbiziko postuak eskuratu dituzte Euskal Herriko txistulari lehiaketan. Argazkia Gasteizko sari banaketan ateratakoa da.

Ikastolaren Eguna ekainaren 16an

Labiaga ikastolak, ikasturte bukaera hurbiltzen ari dela eta, urteroko Ikastolaren Eguna ospatuko du ekainaren 16an.

Aitzineko urtetan bezala bazkaria egingen dute irakasle, ikasle, ikasle ohi, bazkide, laguntzaile eta gurasoek eta arratsaldean, haurrentzako ekintzak prestatu dituzte. Xehetasunak ikastolan.

Altzateko bestak ekainaren 14tik 16ra ospatuko dira

Altzateko bestak hurrengo asteburuan ospatuko dira honako egitarauarekin.

Ortzirala 14: 11etan Puy ostatuan *Sustraia* taldea. 12,30etan Zizkan *Amor a Traición* taldea eta Izaskun eta Amaia dantzariak.

Larunbata 15: 12etan altxaferoak. Segidoan, erraldoi eta buruhaun-

diak txarangarekin. 4etan haur jokoak. 7etan herri kirolak Altzateko plazan. 8etan 'Altzateko Milia'. 12etatik aitzinera, zezensuzkoa txarangarekin.

Igandea 16: 2etan herri bazkaria. 7etan dantzariak eta plazan dantzaldia. 9,30etan, zezensuzko.



Maiatzaren 21ean Iñaki Cabases, Merkataritza, Industria eta Turismo kontseilariak Alco, Funvera, Palmadera, Savera eta Verkol lantegiak bisitatu zituen. Arratsaldean bilera egin zuen inguruko industriariek in Joxemanuel



KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98

BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • **BERA**



BOAN

TAILERRA

CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • **BERA**

AHORRO-BERRI

janaridenda

Legia 4 • **BERA**

Igande goizetan irekia

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 — **BERA** — ☎ 63 07 63

Lesaka

Fabrikaren produkzioa gero eta haundiagoa da

Lesakako CSI-Transformados lantegiak 165.000 Tona txapa egingen ditu 1997 urte bukaeran

AITOR AROZENA

Joan den urtean, CSI-Transformados lantegiak marka berria ezarri zuen Lesakako fabrikari 130.000 Tona txapa produzituz. Halere, datorren urte bukaerarako kopuru hori 165.000 Tonara igoko omen da, Cesar Martin Lesakako fabrikako industri saileko arduradunaren erranetan. Siderurgia arloan ari diren Europako enpresen batzar orokorrean erran zituen solasok, Bartzelonan.

Produkzioa haunditzearekin, kalitatea ere hobetuko da elektrogailuen arloaren eta, orokorrean, industriaren beharrei aurre egiteko. Eraberean, galbanizatu lerroa zabalduko omen da.

Joan den urtean, txaparen merkaturua, altxairuan nahiz aluminioan egina, %25a igo omen zen Europan eta %30a estatu espainolean.



Maiatzaren 18an lehen jaunartzea egin zuen neska-mutiko talde honek

Arg.: TELLETXEA

Urrezko Clubaren besta 18an

CANen Urrezko Clubeko urteroko besta ospatuko da ekainaren 18an. Urrezko Ezteiak ospatzen dutenak omentzeaz gain, meza, dantzariak, musikari beteranoen emanaldi eta bazkaria izanen dira. Bazkarirako txartelak lehenbaitlehen hartu behar dira CANen bulegoetan.

Helduen euskalduntzeari buruzko IKAREN idatzia onartu du Udalak

Udalbatzak ahobatez onartu zuen IKAK aurkeztutako idatzia. Honenbertzez, 1995eko laugarren hiru hilabetekaldian IKARI kendutako dirua bueltatzea eta aurtengo dirulaguntzari, azken bortz urtetan eman ez zaion IPCaren igoera ematea eskatuko dio Herriko Etxeak Nafarroa-

ko Gobernuko Kultura kontseilariari. Eraberean, "Lesakako Matxinbeltzenea barnetegiak eskaintzen duen aukera egokia kontutuan hartuta, beraur bultzatzea eta diruaz laguntzea" eskatu da. 16 urtez goitiko euskalduntzeak jasan duen diskriminazioa ere salatu du IKAK.

ttipi-flash

Pizinen arduradunak

Leire Portu, Zaine Rodriguez eta Josune eta Ainhoa Terros izanen dira uda honetan. Hiru eskaintza aurkeztu ziren, 2.220.000 pezetakoak hiruak, baina talde honetan sokorrista tituloa duten bi pertsona daudenez beraiek egingen dute lana.

Landa turismora

zuzendutako bidaxken diseinu, seinalizazio, moldaketa eta publizitatea kontratatzeko lehiaketa egingen da. Xehetasunak Herriko Etxean.

Telebista

kate guztiak Frain, San Anton, Auzoberri eta Zalain auzoetan ikusteko 2.237.356 pezetako aurrekontua onartu du udalak.

Txalaparta

Lesakako Aisialdi Taldeak 60.000 pezetako dirulaguntza jaso du Herriko Etxetik, udan haurrekin egingen dituzten kanpaldietarako.

**KOXKILA
OSTATUA**



Zarandia, 4 - LESAKA

ttipi-ttapa

Gida Komertziala 96

Elektrizista baten bila zabilta?
Gida honetan topatuko dituzu
inguruko guztien telefonoak.



EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 637264

Etxalar

Gasna Feria eta Haurren Eguna udaberriko azken igandeetan

Ekainaren 9an Gasna Feria eta ekainaren 16an, berriz, Haurren Eguna

PELLO APEZETXEA

Ekainaren 9ko Gasna Feriak eskulanean erakusketa ere izanen du lagun, bai plazan bertan, bai eskola zaharretan ere. Eta bertan bazkaltzeko aukera. Ekainaren 16an haurrak izanen dira nagusi, eta Ipuin Topaketa eta bazkaria eguerdiko ekitaldiak.



Katekesi denboraldiaren bukaera dela eta, maiatzaren 28ko arratsaldean besta antolatu zuten katekistek haurrekin. Elizkizun labur baten ondoren plaza joko eta musikaz bete zuten: laster egin, jostatu eta trikixka jo... Akaberako gozokiak eta edariak ongi mereziak iza ziren

Argazkia: Pello

Bestetarako orkestak milioi bat kostako dira

Bezperako Luhartz orkestra 190.000 pzta. Andremari eguneko Maixa eta Itziar 160.000. Abuztuaren 16an joko duen Urrats 225.000. Laiotz orkestra, berriz, 17 eta 18an ariko da eta 430.000 ordainduko zaio.

Arkupeak elkartekoek urteko besta

Urteroko besta eguna zuten maiatzaren 12an Etxalarko Arkupeak Elkartekoak. Baz-

kariak eta dantzaldiak berotu zuen eguraldiak frexko samar eginda-ko arratsaldea.

Pirutegiek ingurua ez kaltetzeko neurriak

Isurkinen solidoak likidoetatik bereizteko tresna paratu dute, alde batetik, eta isurki-

nak lur eremu zabala-goan hedatu, bertzetik, hoderia edo tuberiaz eramanez.

Igerilekuak ekainaren erdialdera irekiko dira

Uda hasieratik irailaren erdira arte irekiko dira igerilekuak.

Funtzionamendu, garbiketa eta mantenimendu lana Garzik eta Iratik hartu dute, iaz bezala. Aintzinetik TTIPI-TTAPAN agertu bezala, ordaintzeko kuotak honako hauek izanen dira:

7 urtez behitokak: dohain.

7-10 urtekoentzat: 1.000 pta. hileko, 1.300 denboraldiko, 200 eguneko.

11-16 urtekoentzat: 1.800 hileko, 2.300 denboraldiko, 300 eguneko.

16 urtez goitikoentzat: 3.500 hileko, 4.500 denboraldiko, 500 eguneko.



Albistur, 39-K • ☎ 627542 • LESAKA

bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

« USOA »

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



HERRIKO OSTATUA
Jatetxea

Lagun artean goxo-goxo egoteko leku egokia

☎ 635290
ETXALAR



ROMANO dekorazioak
PINTURA ETA PAPERZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

- ☛ Zolak jartzen ditugu:
 - Kortxoia
 - Moketak
 - Parketa
 - Sintasola
- ☛ Gure kolokazio tailerra daukagu
- ☛ Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**

Igantzi

Igantzik Lesakara doaien bidea moldatu nahi dute bi udalek

Orain dela bortz urte baino hogei biztanle guttiago ditu herriak, errolda berriaren arabera

OSKAR TXOPERENA

Zinegotziek ahobatez hartu zuten azken plenoan Igantzik Lesakara doaien errepeida moldatzeko konpromezua. Nafarroako Gobernutik etorriko den dirulaguntza kenduta, erdibana ordainduko dute bi udalek obraren kostua. Egia erran, orain dela gutti kunetak pixka bat txukundu baziren ere, badi bide horrek asfaltitik moldatzeko beharra.

596 biztanle

Azkeneko bortz urteotan, aitzineko errolda egin zenetik, 616tik 596ra jeitsi omen da Igantziko biztanlegoa. Hala erran digu oraingoa egiteko lanaz arduratu den Maite Ze-

laietak. Halere, egiazko jeitsiera ez omen da hainbertzekoa, garai hartan, orain dela bortz urte alegia, Berrizauenen egon ziren hama bortz langile kanpotarrak Igantzin enpadro natuak zeuden eta.

Mendiz Goizueta

45 lagunek egin zuten mendiz Goizueta-rako bidaia maiatzaren 25ean. Ez zuten eguraldiaz keizterik behinipein, aski ederra atarra baitzuen egun hartan. Zenbaitzuri joatea baino gehiago gosta omen zitzairen handik ateratzea, urtero izaten duten giroa ezin hobea izaten omen da eta.

Igerilekuak

Uda honetan pisiznara sartzeko txartelak

hartu behar dituztenei ekainaren 1etik 15ra bitartean hartzeko eskatzen die udalak, Herriko Etxeko bulegoan. Iazko salneurri berak izanen dituzte txartelak. Hona hemen uda osokoak: 4-10 urtera: 1.000 pezeta, 11-18 urtera: 2.000 pezeta eta 18tik goitikoak: 3.500 pezeta.

Pala txapelketa

Hurrengo asteetan hasiko da Biltokik urtero antolatzen duen pala txapelketa. Joan den asteartean akabatu zen bikoteek izena emateko zuten epea. Finalak berriz, urte gehienetan, Berako bestetan izaten dira, afaldu ondotik bueltaxka bat emateko.



Aurten Igantzin bildu dira Arantza eta Igantziko nek

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

LABEZAR
© 631076 • BERA



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberriak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA

Aranza

Hamasei gaztek egin dute sendotza ekainaren 2an

Bertzalde, urtea akabatu baino lehen kanposantua haunditzeko lanak egingen dituzte



sidro eguneko besta ospatzera

Argazkia: Oskar TXOPERENA

GARBIÑE ETA ELIXABET

Ekainaren 2an hamasei bat lagunek konfirmazio edo sendotza egin zuten. Egun honekin batera, Ternida Eguna ospatu zen, urtero bezala herriko jende aunitz hurbildu zelarrik. Bertzalde, zazpi bat lagunek lehen jaunartzea egingen dute igande honetan, ekainaren 9an.

Salbatoran lanak

Urte hau akabatu baino lehen kanposantuan lanak egingen dituzte. Salbatora haunditzeko asmoak dituzte. Bertzalde, hiloti berriak egitea nahi duenak udalean eskatu beharko du. Dagoeneko epea irekita da-

go eta ekainaren bukaeran akabatuko da.

Su-egurra

Sutarako egur loteak atera dira. Nahi dituenak izena udaletxean eman beharko du. Epea ekainaren 20a arte luzatuko da.

Eskolan lanak

Eskolan lanak egiteko subentzioa eman du Nafarroako Gober-

nuak, 3.850.000 pezetan. Dirua, kalefakzio sistema eta armarioak egiteko erabiliko da.

Logotipoa

Ekaitza elkarteak antolatutako logotipo lehiaketan Amaia Apezetxea izan da garaile. Nahiz eta partaidetza haundirik ez egon, marrazki franko azaldu ziren.



Joan den urtean Mendaurren egondako batzuk. Aurtn ere koadrilla ederra joan izanen da

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
948 - 62 75 47
LESAKA

Lagunekin
elkartzeko
toki egokia


F. MARITORENA



Mendi eta lorategi garbiketak

Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

ALBERTO



ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Daniel Hechter
- Caramelo
- Island
- Genfis
- Marithe François Girbaud
- Bonaventure
- Replay
- Diesel
- Guess
- Zone

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN

Sunbilla

Herriko ingeniari bat Euskadiko lehen kotxe elektrikoaren egile

Zeus autoaren proiektuaren zuzendaria da Mikel Sanzberro sunbildarra

IXABEL ETA JOSUNE

“Ederki dabil. Soinua da diferentziarik haundiena, ez baitu egiten. Bestela, xua-bea da arrunt, enbragerikere ez du”. Hone-la definitzen du Euskal Herriko lehen auto elektrikoa Mikel Sanzberro ingeniari sunbildarrak.

Mikel Sanzberro Zeus proiektuko zuzendaria izateaz gain, Arrasateko Eskola Politeknikoko elektronika saileko burua da eta bere ikasle batzuekin garatu du egitasmoa, karrera bukaera-ko proiektu gisara.

Autoak orduko 90 kilometroko abiadura har dezake eta 70-100 kilometroko autonomia du. Kargatzeko be-



rriz, gaez 6 ordurekin nahikoa du, zortzi egotea komeni bada ere. Kilometroan pezeta t'erdiko gastua du, 500 kiloko kargarekin ere ongi ibiltzen da eta %25eko malda igo dezake. Hiru milioi pezeta balio du baina sunbildarrak erran duenez, *“hemendik bortz urtera teknologia aitzinduko da eta hagitzez merkeagoa izanen da”.*



Zeus auto elektrikoa eta proiektua zuzendu duen ingeniaria, Mikel Sanzberro sunbildarra Egunkaria

Herriko beste buruzko bilera ekainaren 15ean

Antzakaitz kultur taldearen hurrengo bilera ekainaren 15ean burutuko da, atsaldeko 3etan, Bustitz osatuan. Taldea bezalaxe, bilera ere nahi duen guziarentzat ire-

kia izanen da eta gaia, berriz, herriko bestak.

Bertzalde, artisautza ikastaroa egin duten 20 emakumeak bukaera afaria izan zuten Ulibeltzak elkarrean maiatzaren 23an.



Antzakaitz taldeak antolatutako Kultur Aste bukaerako irabazleak eta partehartzaile batzuek saria eman zuten ordezkariekin batera



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA



SANTAMARIA
Jatetxea

Obrak irauten duten bitartean sarrera gibelesko aldetik.
Berriro asteburuetan irekia.

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



TELLETXEA MOBLEAK
Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziendo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

Doneztebe

Norfres itxi da nagusiak langileei deus erran gabe alde egin ondotik

Bederatzi langileek denuntzia sartzeaz gain, beraien protesta azaldu dute pintada eta kartelen bidez

TXEMA ALDABE

Maiatzaren 25 eta 26ko asteburuan gertatu zen dena, Felix Espinosa Eizagirre nagusiak berak ekarritako tresneria eta saltzeko prest zegoen generoa hartu eta dena eraman zuenean. Norfres lantegian ari diren Malerreka-kako bederatzi langileek deus ez zekiten -astelehenean lanera joateko agindua zuten-. Orain langileak nagusia harrapatu nahian dabilta, bakoitzak guttienez 300.000 pezeta kobratu behar baititu eta gauzak behar bezala egin ditzan eskatzeko. Sindikatuen laguntza ere badute eta beraien egoeraren berri, pintada eta karteltxoen bidez karrikaratu dute.

Lan arazoari osasun arazoa gehitu zaio, ordaintzen ez zuela eta Iberdrolak argia moztu baitio fabrikari eta bertan dauden produktuak usteltzen ari



Felix Espinosa nagusiaren kontrako pintadak egin dituzte Norfreseko langileek fabrikaren paretetan. Apirileko soldataren erdia eta maiatzeko osoa zor zaie langileei eta guztiek langabezia kobratzeko eskubidea dute

Argazkia: D. Noticias

dira. Norfres janari izoztuak egiten dituen lantegia da eta Malerreka Industri Mankomunitateak hamar urterako utzitako pabilioi batean kokatua dago. Momentuz, nagusiak lana utzi dutela erran ez dezan, langileak egunero joaten dira fabrikara, nahiz eta deus ez egin ahal izan.

Hirurteko Planerako lanak zehaztuak

Doneztebeko Udalak 1997-1999 Hirurterako inbertsio plangintzaren barnean egin nahi dituen lanak zehaztu ditu. Aurrekontua 200 milioi pezeta ingurukoa da. Lehen tasuneko lanak ur sa-neamendu eta banaketa sarea eta argiteria berritzea, lan hauen on-

dorioz beharrezkoak izanen diren zolaber-ritze lanak egitea, San Miguel karrika mol-datzea eta herrigune-an gasa sartzea izanen dira. Bertzalde, kanpo-santuko 92 hilobi haunditzeko proiektua onartu du udalak. Aurrekontua 11.115.482 pezetakoa da.

ttipi-flash

- ♦ **30.000** pezetako dirulaguntza eman dio udalak DYA erakunde-ari, Malerreka eta Baztan-Bidasoan eskaintzen dituen zerbitzuak ematen segi dezan.
- ♦ **Euskera Plangintza 96** kanpainarako 290.000 pezetako aurrekontua izanen da, horietatik 174.000 pezeta Euskera Zerbitzuak emanak.
- ♦ **Arte eta Kultura** aurtengo kanpainarako 482.000 pezetako aurrekontua izanen da. Nafarroako Gobernuak 300.000 pezeta inguruko subentzioa emanen du.
- ♦ **5.600.000** pezetakoa izanen da aurtengo San Pedro bestetako aurrekontua.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA

MERTZERIA

Parrokia 6
Tfnoa: 45 04 63
DONEZTEBE

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.

Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA

ttipi-ttapa

Gida Komertziala 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!



UDA HONETAKO EZKONTZETAKO
KANPAINA BERRIA HASIA DAGO
JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKI
ETA OPARI HOBERENAK

KALE NAGUSIA 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

Malerreka

Kukumiku lehiaketaren finala ekainaren 8an Doneztebeko zinean

Malerreka osoko hemezortzi bikotek parte hartu dute Eratsun, Sunbilla eta Beintza-Labaienen egindako kanporaketetan

TXEMA ALDABE

Eratsun, Sunbilla eta Beintza-Labaienen hiru kanporaketa jokatu ondoren, larunbat honetan, ekainak 8, atsaldeko 6etan Kukumiku lehiaketaren finala jokatu dute bortz bikoteren artean. Giro ederra izan den da gazteen artean eta ez da animaziorik falta. Kultura orokorra, geografia, kirola, musika eta zinea eta jokuei buruz erantzun beharreko galdemoduetan erakutsi behar dute beren jakinduria eta abilezia. Azkenean, sariak banatu dira eta parte hartu duten



Sunbillako kanporaketan, neska-mutikoak adi

Argazkia: TXEMA

bikote guzkiek zerbait eramanen dute, hobereak txapeldunendako izanen direlarik. Sariak CAN eta Euska-

diko Kutzak eta Doneztebeko zenbait dendak emanak dira. Lehiaketan aritu direnak honako hauek dira: Na-

gore Eskudero-Maite Telletxea, Mikel Mutuberria-Arkaitz Minda, Mikel Saralegi-Dabid Andresena,

Eneko Telletxea-Josu Juanena, Ainara Mendiburu-Edurne Mutuberria, Maider Irazoki-Maider Bidegain, Arkaitz Bizente-Gaizka Elizalde, Maria Bañares-Ainara Mutuberria, Marta Petirena-Amets Inda, Pilartxo Mitxeltoarena-Maria Arretxea, Idoia Eratsun-Laura Reguera, Patxi Olazar-Jabier Otermin, Aitziber Eratsun-Bea Ostolaza, Aritz Fernandez-Aritz Agesta, Izaskun Bertiz-Leire Elizondo, Julen Etxebeste-Jose Mitxeltoarena, Luis Martin-Joseba Legarra eta Juan San Miguel eta Mikel Meoki.

Bioaniztasunari buruzko erakusketa Bertizen

Hilabetea akitu arte zabalik

TTIPI-TTAPA

Bertizko Natur Parkeko gurditegia eta Jauregiko erakusketa aretoan bioaniztasunari buruzko erakusketa zabalik dago jondan den maiatzaren 11tik ekainaren 30era. Erakusketa, argazki, marrazki, datu eta irudiz betetako hemezortzi panelez osatua dago. Horien bidez,

“azkeneko mendeantengabeko garapen ekonomikoak izadi aniztasun biologikoa arrisku bizian ezarri duela” adierazi nahi da, *“ez bakarrik urrutiko oihanetan, baita gure inguruan ere”*. Aretoaren ateak goizeko 10etatik 1,30etara eta arratsaldeko 4etatik 7,30etara zabalik egonen dira.



Aunitz aurkeztu ez baziren ere, Doneztebeko Udaberriko Ferian azienda buru ederrak ikusi ahal izan ziren

Argazkia: TXEMA

Udaberriko Feria ospatu zen maiatzaren 10ean

Aziendak gustokiak dituen hainbat jende bildu zen maiatzaren 10ean Donezteben ospatutako Udaberri-

ko Ferian. Ez dira, noski, udazkenekoak bezain jendetsuak izaten eta baserritarrak lasaiago egon daitez-

ke beraien kontuak kontari edo, zergatik ez, tratuak egiten. Kanpoko saltzaileak ere guttiago dira.

Trinidad Eguna ospatu da ekainaren 2an Mendaurko kaxkoan

IBAN ISASI

Ekainaren 2an ospatu da inguruko altuena den Mendaur mendiaren kaxkoan dagoen ermita edo baselizaren eguna. Beti

bezala, jende ugari agertu da, batez ere Ituren, Zubieta, Sunbilla eta Arantzatik. Arratsaldez Iturenen egin-dako dantzaldian ere giro ederra izan zen.

Otsaila aldera eginda-ko haize bolada indartsu haiek teilatuan kalteak eragin zituztela kontatu genuen. Horregatik, auzolana antolatu zen duela hila-

bete bat, konponketa egiteko. Materialak mendi magaleraino, Aitzurarraino ibilgailuz eraman zituzten eta handik aitzinera, zaldiz, astoz eta bertze

batzuk soin gainean hartuta eraman zituzten. Mendi gaineko etxetxoak kisuz pintatu zuten ekainaren 2ko bestak deus falta ez zezan.

Etxebizitzak eginen direneko herri lurak esku pribatuetara pasatzeko enkantea Iturenen

TTIPI-TTAPA

Laister batean etxebizitzak eginen diren lekuko herri lurak enkantean eskuz aldatu nahi ditu Iturengo Udalak. Hori bai, lur horiek hartzen dituenak, etxebizitzak egiteko proiektua, Miguel Angel Garaikoetxeak idatzia, ere ordaindu beharko du, ia 5 milioi (4.937.083 pezeta). Lurraren enkantearen hasierako prezioa bi milioi t'erdi pezetakoa izanen da, BEZa kontuan hartu gabe. Proposamenak bi sobretan aurkeztu beharko dira Iturengo Herriko Etxean, ekainaren 24aren eguerdiko 1ak baino lehen. Sobre batean dokumentazio administratiboa, hau da, eskatzailearen datuak eta 250.000 pezetako fidantza ordainketa eta bertzean proposamen ekonomikoa azaldu beharko dira.

Xehetasun gehiagoren berri jakiteko Iturengo Herriko Etxeko bulegoetara joan behar da edo zuzenean, 450302 telefonora deitu.

NATIONAL GEOGRAPHIC BILDUMA

TXARTEL HAU EK ERABILTZEN BADITUZU



HILABETERO BIDEO BAT OPARITUKO DIZUGU

Orain, Caja Ruralaren Txartelak erabiliz, hilabetero eta guztiz dohainik, National Geographic Society-ren bideo bilduma zoragarri hau osa dezakezu. Horretarako, nahikoa duzu hilabetean guttienez 5 erosketa egitearekin, guztira 50.000 pezeta baino gehiagoko gastua eginez, eta denak 1.000 pezetatik goitikoak izatea, eta bideoa zurea izanen da. Hurrengo hilabetean zehar Caja Ruraleko zure ohiko sukurtsaletik pasatu eta bildu bertzerik ez duzu egin beharko.

NAZIOARTEKO FAMA DUEN 6 BIDEOEN BILDUMA EDER HAU ESKURA EZAZU



GIUIGNO
Los titanos



JULIO
Los grandes indios



AGOSTO
Lemurs y lorises



SEPTIEMBRE
Misiones de San Geronimo de Aconcagua



OCTUBRE
El mar: Sabores de mar



NOVIEMBRE
El reino del castaño

Mundu osoan ezaguna den National Geographic zientzi elkartearen bideoak eskura itzazu. Harritu zaitetz milioika ikusle interesatu eta amerikar telebistako 4 Emmy sari lortu dituzten irudiekin



CAJA RURAL DE NAVARRA

Goizueta

Loitzateko haize-erroten parkea ez da egingo azkenean

Nafarroako Gobernuak ingurugiroari dagozkion garrantzi haundiko motibuak aipatzen ditu baimena ukatzerakoan

ESTEBAN AROZENA

Bere garaian orri hauetan aurkakoa adierazi bagenuen ere, Loitzaten ez dugu haize-erroten parkerik ezagutuko, 'Energia Hidroelectrica de Navarra' (EHN) enpresak aurkeztutako proiektuari ezezkoa eman baitio Nafarroako Gobernuak. Ingurugiroari dagozkion "garrantzi haundiko motiboak" aipatzen dira baimena ukatzerakoan.

Nafarroako beste 30 proiektu baino gehiago dira arrazoi ezberdinengatik Ingurugiro Sailaren ezezkoa jaso dutenak. Loitzatekoari buruz, esate baterako,



Hamar neska-mutiko hauek lehen aldiz jauna hartu zuten maiatzaren 26an, Goizuetako elizan

dorreen instalazioak eta bertara joateko bideek Atlantiko erakolarre eta sasiak hondatuko omen lituzkete. Honetaz gain, Men-

daur mendiaren paisai naturalaren "funtsezko baloreak" galera handia jasoko omen luke, mendizale asko ibiltzen den inguruan gai-

nera, Gobernuak diotenez. Bi arrazoi hauek gutxi balira bezala, pistak egiterakoan sortu litezkeen erosio arriskuak ere aipatzen dira

txostenean.

Esan bezala, herriko lurretan parkerik edukiko ez badugu ere, gutxienez orain artekoak zerbaiteko balio izan du, EHNrekin kontratua sinatu zenean milioi bat pezeta kobratu baitzuen Udalak, eta dirudienez hemen geldituko da dirutza hori.

UEUrako matrikula

Uztailaren 15tik 27ra Iruñean burutuko diren Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroetan matrikula baten balioa ordainduko du Udalak, herritarren batek bertan izena emango balu behintzat.

Areso

Etxebizitzak egiteko lur gutxiago izango da

Horrenbestez, subentzia ere txikiagoa izango da

JUANA M^o SAIZAR

Azkeneko batzarrean, etxebizitzak egiteko lur eremu gutxiago izango dela erabaki zen, Alpaideneako lur eremua bazterrean utzi baita. Honek, subentzia ere txikiagoa izango dela esan nahi du. Hasiera batean, lau eremu ziren etxebizitzak egitera zuzenduak, denetara 10.784 metro karratu hartuz. Orain 6.966 metro karratutan geratu da.



Izargainen hitzaldia

Izargain taldeak hitzaldia eman zuen maiatzaren 25ean. Jorratutako gaiak Arrakasta, Banatu edo lehiatu, Zoriontasuna eros daiteke?, Hainbat daukat hainbat balio dut izan ziren. Jende asko hurbildu zen entzuteran. Goenkaleko Gaizka ere bertan izan zen, haurren gozamerako.

ttipi-flash

Zuhaitz bakantzeak

Urteaga eta Elutsarreko pinudietan bakantzea eginen da eta Muinoandi eta Urtxabaletan berriz, pinu loteak aterako dira batean eta bakantzeak bestean.

Olazar

garai bateko zabortegia datorren astetik aurrera garbituko du herriko jendeak.

Semero

atariko kurba edo bihurgunea oso gaizki dagoela eta Udaletxeak hesitu egingo du.



Kontenedore urdineko kilo bat ere ez da birziklatu

Araza konpontzeko, papera eta kartoi garbiak bakarrik utzi behar dira ontzi hauetan

JOSEBA AZPIROZ

Orain arte, kontenedore urdineko kilo bat ere ez da birziklatu, bilketa selektiboa gaizki egin delako. Arazo hori konpontzeko kontenedore urdinetan papera eta kartoi garbiak bakarrik utzi behar dira hemendik aurrera. Beira edo kristala kontenedore berezietara botatzen segitu behar da, tapa eta kortxorik gabe. Gainerako zaborrak kontenedore berdeetara bota behar dira. Bestalde, kexak izan dira herriko komunitateko ur zikinak erre-kara botatzen diren puntuaren inguruan pilatzen ari diren konpresa, preserbatibo, plastiko, eta abarreatatik. Gogorazi behar da horrelakoak zakarontzira bota behar direla eta ez erreketara. Eta berdin mendian botatzen diren elektratesna eta horrelakoekin. Hilero biltzen dituzte ataritik eta ez dago isunak jasotzeko arriskurik.



Jende asko hurbildu zen Kultur Asteko azken eguneko eskulangintza erakusketara, baita eskolan egin zen bazkarira ere (175 lagun inguru). Antolatzaileak baikor azaldu dira astean zehar egin diren ekitaldietan izan den partehartzearekin

Argazkia: Joseba

Kultur taldeen zerrenda egin nahi du UEMAK

Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak herriotan kultur ekintzaren bat eskaini dezaketen talde guztien zerrenda osatu nahi du, mankomunitateak irailetik aurrera antolatuko duen kultur zikloan herri bakoitzak nahi duen aukera egin dezan. Zerrendan sartzeko interesa dutenek, Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarri daitezke, ekainaren 7a baino lehen.

Ikusi zeinen dotore azaltzen zaizkigun Jose Joaquin Zabaleta eta Rosario Aranburu. Ez da gutxiagorako, Urrezko Ezteiak ospatu baitituzte beraien familiarekin.



ttipi-flash

Igerilekuen kudeaketa

lehiaketa baten birtartez partikularren eskutan utziko da. Adjudikazioa zuzenduko duen baldintza plegua interesatuen esku dago udal idazkaritzan. Eskaintzak aurkezteko epea ekainaren 11n, eguerdiko 12etan bukatuko da.

Ainara Zabaletak

kadete mailako Nafarroako tenisko 4. zirkuitua irabazi zuen maiatzaren 26an, ia hiru orduko finala jokatatu ondoren.

 Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentsatu baduzu, harrituko zaitugu!

Basa Kabi

Tel. 51 01 25 · Faxa: 61 09 65
LEITZAko Gaina

• Era guztietako Aseguruak
Etxerakoak, Bizitzakoak,
Istripuetakoak, Jubilazio Planak

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA
Tel. (948) 61 09 19
M^a Jesus BARAIBAR



SALDIASko zerrategia
Eraikuntzarako estrukturak eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

Baztan

Sendabelarrei buruzko ikastaroa hasiko da abudo

Laura Gurbindo izanen da ekainaren 17tik 28ra luzatuko den kursoaren irakaslea

JOSEBA IGARABIDE

Balleko Etxeak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz sendabelar ikastaroa antolatu du. Ekainaren 17tik 28ra egingen da eta Baztango ingurugiroa, natura eta belarrak ezagutzeaz gain, "gure osasunaren mesedean belarrak nola erabili" ikasiko dute, Laura Gurbindo irakaslearen erranetan. Izen emateak ekainaren 14a bitarte egiten ahal dira Arizkunenea kultur etxean, 1.000 pezeta ordainduta.

Eskultura erakusketa

Koldo Azpiauren eskulturak ikusgai daude Arizkunenea kultur etxean ekainaren 1etik 13ra artio. Ordutegia, arratsaldeko 7etatik 9etara.

Ornoz-Mugairiko elizatarian hameketakoa igande honetan

Josu INZIARTE

Ornoz-Mugairiko elizako lanak akitu ondoren igande honetan, ekainaren 9an, elizatarian hameketakoa bat izanen da herritar guzientzako, inaugurazio gisa eta auzolanean egindako lanak eskertzeko. Bertako alkateak txosten bat bidali die familia guziei,



Guztira 54 lagunek parte hartu dute Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte erresidentzian jokaturako Mus, Sei eta Briska txapelketetan. Musean, Juan Bautista Iribarren eta Mertxe Iraizoz izan ziren txapeldunak, briskan M^a Dolores Ahizpa eta Santiago Garcia eta seietara, Matilde Valenzuela eta Maxima Zubieta

Argazkia: ZALDUA

❖ **Elizondoko** Santiago festak antolatzeko bilera izan da larunbat honetan.

❖ **Ornozko** Lanbide eskolak ekainaren 2an urteroko besta ospatu du.

❖ **Elizondoko** artisau ikastaroan aritutako emakumeek afaria izan zuten maiatzaren 24an.



Auzolanean moldatu da Ornoz-Mugairiko eliza. Elizatarian argia paratuko dute orain.

ttipi-flash

- ❖ **Ornozko** eskolako guraso elkarteak kexu dago gaur egun hurrek klaseak jasotzen dituzten eraikuntzaren kondizioekin. Protesta idatzia Balleko Etxean aurkeztu zuten.
- ❖ **Elbeteko** Karrika ostatuko Karrikaburu anaiek hirugarren postua eskuratu dute Nafarroako 8. mus txapelketan.
- ❖ **Trinitate Eguna** ospatu dute Arizkunetan. Bazkal ondotik soina izaten dute. Elizondoko Santa Engrazia basilikan ere meza izan zen.
- ❖ **Elizondoko** egoitza inauguratu zuen UPNk maiatzaren 26an. Jesus Aizpun ere bertan izan zen, Santiago Ustarroz Baztango UPNko lehendakariarekin batera.
- ❖ **Behi eta migak** Lizartzu, Belate eta Erdizko belardi hesietan bazkatzen ari dira ekainaren 1etik aitzinerat.
- ❖ **Nortasun Agiria** atera edo berritu behar baduzu ekainaren 6 eta 20an etorriko dira Elizondora.
- ❖ **Arraiozko** eliza konpontzeko auzolana egin dute igande honetan.

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 580313
ELIZONDO

SAS KAITZ fontanería calefacción
GA
Empresa colaboradora de **REPSOL** BUTANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • **ELIZONDO**

JATETXEA
© 580297
Pedro Axular
ELIZONDO
Santxotena

Almandozko bestak asteazkenean hasi eta igandera bitarte luzatuko dira

Ekainak 5, asteazkena:

1etan suziriak beste hasiera emateko. 9etan kalejira herriko karriketant barna. 10etan afari herrikoia Zoko-Zar elkartean. 12etan dantzaldia.

Ekainak 6, ortzegune:

7etan gau-txorientzat gosaria. 8etan aurora. 12etan meza nagusia. 1etan hameketako herrikoia. 9,30etan pilotalekuan afari herrikoia. 11etan dantza txapelketa eta gau partean, goizaldera arte dantzaldia Modestorekin.

Ekainak 7, ortzilerie:

7etan gau-txorientzat gosaria. 11etan mus txapelketa herriko ostatueta. 2,30etan zikiro-jatea pilotalekuan Joseanek alaitua. 7etan Gauerdia txarangak giroa alaituko du. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia Media Luna taldearekin.

Ekainak 8, larunbata:

11etan haur jokoak. 4,30etan plater tiroketa. Arratseko 8,30etatik 10,30etara eta goizaldeko 1etatik 5etara dantzaldia Basajaun taldearekin.

Ekainak 9, igandea:

7etan Zurgai herri-kirol taldea: aizkora, gurdia eta fardo altxatzea. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia Media Luna taldearekin. Ondotik Pobre de Mi bizirik dudenentzat.



Almandozko gazte koadrilak hasiak izanen dira dagoeneko beraien umore ona erakusten. Ez dira bakarrak izanen, ordea, aurtengo besta egitarauak edonork ongi pasatzeko aukera zabalak eskaintzen baitu. Animo, beraz!

BAZTAN FUNERARIA
 EHOZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
 ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
 Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
 Tfnoak: 580373 • (908) 776176

ERLOJU eta BITXI DENDA
ARRIETA
 KIROI TROFEOAK
 Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

ARLA
ARDOTEGIA
 Ardoak • likorrak • freskagarriak
 Santiago, 56 • ELIZONDO
 ☎ 45 32 66 (etxekoa) ☎ 45 24 73 (bodega)

JATETXEA
 Tfnoa: 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO
Galarza

Baztanen...
ESTHER
 LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
 Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
 Dokumentazioak
 Beztitzeak, etab...
 Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
 Iratxe Monastegia, 60
 Tfnoa: 26 09 54
 Arizondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**
 Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**
 Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

FOTO MENA
 UDA HONETAKO EZKONTZETAKO
 KANPAINA BERRIA HASIA DAGO
 JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKI
 ETA OPARI HOBERENAK
 KALE NAGUSIA 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE
 SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

M^{re} Dolores Miñana
TOPOGRAFOA
NEURKETA • PLANOAK
 Lur neurketak, Luberriak
 Plantazioak, etab...
 ☎ 580143 - 989.445986
 Santiago 68, 3. esk. **ELIZONDO**

Zugarramurdi

Eskolako neska-mutikoak bidaiatik itzuli berriak dira

Maiatzaren 27tik ekainaren 3ra bitarte Lleida inguruak ezagutzen egon dira

MARGARI ETA KORO

Kurtsu bukaera ailegatu dela eta Urdazubi eta Zugarramurdiko eskoletakoak bidaietan zaizkigu: 4. mailatik 8.era (denetara 30 bat lagun) Lleidako bidea hartu dute eta han aste batez, maiatzaren 27tik ekainaren 3ra, gauza franko egin ahal izan dituzte: rafting, eskalada, 4x4 ibilgai-lutan eskurtsioak, moto ttikietan ibili eta bertzeak.

Ezkontza bat!

'Kotilleo' pittat ba-



Juana Mari eta Dominiquen ezkontzak ikusmin handia sortu zuen, ez baita eguneroko gauza gure herri ttiki hauetan

linbada ere, gure herri ttiki hauetan ezkontza bat berri handia da. Bezperako gauetik, suziri eta su artifizialekin orotarazi gintuzten Juana Mari eta Dominique ezkontzen zirela, eta egunean, ohitura zaharrak dioten bezala, Juana Marik Teletxetik oinez egin zuen elizarako bidea.

Gainerakoak badatzkie: ezkonberriak ezin guapoagoak, gonbidatu pila bat, bazkari ederra, umore ona... eta hortik aitzina, suerte ona izan eta luze iraun dezala.

Urdazubi

Jostungintza ikastaroari bazkari batez eman zitzaion akabera

Bestetako errifan, bertzalde, Agustin Txipi eta M^a Jose Etxeberria herritarrak izan dira sarituak

ALIZIA OLAIZOLA

Helduendako ikastaroetako jostungintza klaseak urrian hasi ziren eta maiatzan eman zitzaion akabera. Irakaslea, aspaldiko urtetan bezala, Anastasi Bidart herritarra izan da eta hamazazpi emakumek parte hartu dute. Ikastaroari akabera ona emateko Indiano-baitan bazkari eder bat egin zuten.

Bestetako errifak

Errifaren sari nagusia, mendi bizikleta bat, Agustin Txipiri tokatu zaio 972 zenbakian,



Jostungintza ikastaroa maiatzaren 7an finitu zen...

Patxi bentan saldua. Gizon hau suertekoa da, orain dela lau urteko zozketan bidaia tokatu baizitzaion.

Bigarren saria, kutxa sorpresa bat, 410 zenbakian tokatu da. Pako Bentan saldu da eta M^a Jose Etxeberria herri-



...eta bukaera Indiano-baitan ospatu zuten bazkari eder batekin

tarrari tokatu zaio. Honela, sariak herrian berean geratu dira.

Heriotza

Aurtengo bigarren

heriotza maiatzaren 24an izan zen, Altsuako Tomas Fagoaga Etxenikerena, 81 urtetan.

Sara

Maiatzaren 19ko Sarako Itzuliak arrakasta haundia ukan zuen

Bortzehun bat mendizalek parte hartu zuten Axuria elkarteak antolatutako ibilaldian

MIXEL ETA JACQUELINE

Sarako Itzuliak arrakasta haundia ukan zuen. Maiatzaren 19an egin zen eta bortzehun bat mendizalek parte hartu zuten aro ederra lagun. Goizeko 7ak eta 8ak artean abiatu ziren Sarako plazatik eta bi-dean bederatzi eta hamabi ordu artean eman ondotik leku berera itzuli ziren. Ibilbidea mugaz muga gan zen eta aski bixta ederrak ikusteko parada ukan zuten partehartzaileek. Axuri mendi elkarteak 1989an antolatu zuen lehenbiziko Sarako Itzulia eta gerotik urtero egin zen. 1994an erabakia izan zen bi urtetarik egitea. Aurtengoa huts egin duenak 1998koaren



Sarako Itzulia Larrunen gaindi

beha egon beharko du...

Presoak Euskal Herrirat futbol lehiaketa

Presoak Euskal Herrirat lempetan fut-

bol lehiaketa bat antolatu da Sarako zelaian (Animainean), erearoren 22an, arratsaldez. Sustengatzaileek diotenez taldeetan neska bezainbat mutil izan behar da. Segi hola.

Eskubaloi lehiaketa hilaren 15ean

Sarako Urtxintxak taldeak (Hand-ball taldea) eskubaloi lehiaketa bat antolatu du. Erearoren 15ean iragaitekoa da arratsalde-

ko 2etarik goiti poliki-roldegian. Arratsean kiroltzale eta Urtxintxen sustengatzaileek afaltzeko parada ukanen dute hor bertan.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak



Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

SAROBE

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562

IRURITA - BAZTAN

Sukalde eta Bainu Mobleak

Egoki-ren banatzaile baimendua



EZKONTZAK

Jose Antonio Leiza Iturria eta **Maria Pereira Guimaraes**, Lesaka eta Brasilgoa, maiatzaren 18an.
Manuel Olano Jauregi eta **M^a Begoña Tabia Usabiaga**, Altzo eta Hernanikoa, Lesakan, maiatzaren 18an.
Juan Ignacio Zaldain Garaiburu eta **M^a Mercedes Iraizoz Iñarrea**, Elizondokoak, maiatzaren 11n.
Fermin Fagoaga Oiaregi eta **M^a Rosario Ariztegi Sansiñena**, Ituren eta Irungoa, maiatzaren 11n.
Juana Mari Olaizola eta **Dominique Lekuona**, Zugarramurdi eta Urruñakoa, maiatzaren 25ean.
Jose Luis Oskoz Mutuberría eta **Begoña Elizalde Aldaia**, Arantza eta Eratsungoa, maiatzaren 18an.

JAIOTZAK

Amaia Bihotz Zugarramurdi Menta, Doneztebekoa, maiatzaren 10ean.
Ramuntxo Albistur Carrizo, Doneztebekoa, maiatzaren 17an.
Gorka Sanjurjo Zabala, Lesakakoa, maiatzaren 14an.
Maitane Goikoetxea Goikoetxea, Leitzakoa, maiatzaren 17an.
Julen Altzugarai Urzelai, Berakoa, maiatzaren 20an.
Janire Apeztegia Etxebeste, Sunbillaakoa, maiatzaren 12an.
Joseba Aldabe Etxeberria, Igantzikoa, maiatzaren 19an.
Ane Miren Barandarain Sorabilla, Aresokoa, apirilaren 24an.
Gorka Delgado Alba, Nartartekoa, maiatzaren 1ean.

HERIOTZAK

M^a Oliva Apeztegia Valcarlos, Doneztebe, maiatzaren 12an, 64 urte.
Jose M^a Iribarren Iribarren, Doneztebekoa, maiatzaren 18an, 62 urte.
Miguel Zubigarai Iturria, Lesakakoa, maiatzaren 9an, 69 urte.
Jose Ramon Taberna Zubiria, Lesakakoa, maiatzaren 14an, 42 urte.
Mercedes Barberena Etxarte, Igantzikoa, maiatzaren 9an, 79 urte.
Jose M^a Irigoien Iparragirre, Igantzikoa, maiatzaren 18an, 67 urte.
Jose Petrikorena Migelena, Igantzikoa, maiatzaren 26an, 84 urte.
Araceli Mañeru Torrano, Elizondon, maiatzaren 16an, 80 urte.
Urbana Inda Jauregi, Erratzukoa, maiatzaren 18an, 79 urte.
Antonia Etxebeste Oiartzabal, Elizondokoa, maiatzaren 24an, 75 urte.
Anastasia Arribillaga Zabaleta, Leitzakoa, maiatzaren 25ean, 76 urte.
M^a Natividad de Carlos Abrego, Elizondo, maiatzaren 26an, 80 urte.
Jose Ariztegi Graziarena, Donamariakoa, maiatzaren 22an, 90 urte.
Fabienne Jorajuria, Sarakoa, maiatzaren 23an, 23 urte.
Fermin Sancinena, Sarakoa, maiatzaren 24an, 65 urte.
Tomas Fagoaga Etxenike, Urdazubikoa, maiatzaren 24an, 81 urte.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA**
 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO**
 polit bat oparitzen diegu. Amendako
 "Está creciendo" liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA
El Banco de los Seguros

*Esquisaroi
 jatetxea*
 Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

**BEINTZAko
 OSTATUA**
 Tfnoa: 45 00 14
 BEINTZA-LABAIEN

MariCruz
LENTZERIA
 Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • **BERA**



• **DROGERIA • LURRINGEGIA • OPARIAK •**

*Barne edo kanpoalderako behar
 dituzun pintura plastikoak*

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak	112/088
Osasun Zentruak	
Elizondo	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
Erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidentzia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak)	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	450475
Elizondo	580924
Lesaka	637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018
Aberiak:	
Iberdrola	450335 / 450336



Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak aurten antolatu duen plazaratu gabeko bertsolarien txapelketan eskualdeko partaidetza zabala izan da. Esteban Arozena goizuetarrak lortu zuen txapela eta bertsorik onenari emandako saria Mikel Altzuart arizkundarraren eskuetara joan zen. Beraiekin batera aritu ziren maiatzaren 19ko saioan Patxi Bakero eta Isaac Etxeberria goizuetarrak eta bertze lau bertsolari.

Eskolarteko bertsolari txapelketarik ez da burutu

Nafarroako Gobernuak, aspaldiko urtetan ikastetxez ikastetxe zebilen bertsolaritza irakasle bat ordaintzen zuten. Irakasle hau arduratzen zen Nafarroako Eskolarteko bertso-zahar, bertso-paper eta bapateko bertso txapelketa antolatzeaz. Aurten, Hezkuntza sailak ez du irakasle honen beharrik ikusi eta, beraz, ez da txapelketarik burutu. Halere, Euskal Herriko txapelketara ordezkariak bidaltzeko proba bat antolatu dute Nafarroako bertso eskolek Lesakan.

'Babesturiko Giza Lana' proiekturako langile bat kontratatze deia egin du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, langile bat kontratatu nahi du *Babesturiko Giza Lana* izeneko proiektua aurrera eraman dezan.

Lan kontratua 6 hilabetetarako izanen da, egunean hiru orduko lanaldiarekin. Halere, ordu kopuruari dagokionez aldatetarik izan daiteke.

BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK

Giza Zientziak delakoekin, harremanak dituzten profesionalak aurkezten ahal dira, hau da, gizarte langileak, edukatzaileak, psikologoak, pedagogoak eta gizarte egokitzapenerako teknikariak.

Hortaz gainera, interesatuak euskalduna beharko du izan eta

automobila eta gidatzeko karneta ere beharko ditu.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak eta kurrikulumak aurkezteko azken eguna ekainaren 14a izanen da eguerdiko 12etan Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak Etxalarren duen bulegoetan.

ETXANDI
TXOKO
erretegia
Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

koxkonta



Sagardotegia
zabalik

Deitu
ereserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

muñeca de Trapo



Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

DATUAK.....

① Unai Apeztegia esku pilotari iturendarrak 21 urte bete zituen urtarrilaren 13an. Aurtiz auzoko Eguzkialdea etxekoa da.

② Asegarce enpresarekin bi urteko kontrata sinatu du eta apirilaren 13an debutatu zuen Elizondon.

③ Azken bi urteotan Zubietako granjan ari da lanean.

④ Ttikitatik aritu izan da pilotan Leitza lagunarekin. Lehenbiziko txapelketa txuriz jantzita berriz, 13 urtetan jokatu zuen Gartzaronen.

⑤ Munduko Kopa eta DV eta Mungiaoko txapelketak irabazi zituen iaz afizionatu mailan.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
AITOR AROZENA

Unai APEZTEGIA: «Nik dakidana erakutsi nahi dut kantxan eta oraindik ez dut lortu»

Debutaren egunetik ia bi hilabete igaro direnean, profesionale-tako lehen pausuen hausnarketa egin du Unai Apeztegia Aurtizko atzelariak. «Hasi- siera beti zaila izaten da, badakizu, nerbio- ekfaktura pasatzen du- te baina ikusten dut po- liki-poliki asentatzen ari naizela». Afizionatu eta profesional mailen arteko aldaketarik nabarmenena konstan- tzian sumatu du. «Afi- zionatutan peloteo gu- txiago izaten zen. Pro- fesionaletan eman eta eman egin behar duzu, kontrarioak ez du hutsik egiten eta zuk ere ez duzu hutsik egin be- har, horrela gabiltza».

TXARUTA ELKARTEARI ESKER ONA

Txaruta elkartearen izenean aritu da Apeztegia profesionaletara pasatu aitzin eta Txarutako entrenatzaileen lana goraiatu du behin baino gehiagotan. «Baztan eta Malerrekako eskolak elkartu zituzten eta bitarteko aunitz jarri dituzte guk txapelketak jokatzeko askatasuna izan dezagun. Gukahalik eta hobekien prestatzeko eginahalak egin dituzte, pesak erosi...». Joan den urtean Nafarroako



Profesionaletan hiru partidu irabazi eta hiru galdu ditu Unai Apeztegiak

Herriarteko txapelketaren finalera ailegatu ziren eta aurten ere finalerik hurbil egonen direla uste du aurtiztar- rarak. «Goñi eta ni profesionaletan gaude, baina hor daude Leitza, Otxandorena, Atxa eta mutiko gazte koadrilla majoa. Aurten ere mai-


la politeko taldea izanen da».

«ESKUIKIN KOLPEA HOBETU BEHAR DUT»

«Bi esku onak ditut, gutti huts egiten dut. Jo ez dut aunitz egiten baina pilota arrimatzen eta aurrelariari kentzen saiatzen naiz. Poliki-poliki eskuina- rekin golpea hartzen saiatuko naiz. Mugimendu mantsok daukat eta honela ezin zaio belozidaderik eman pilotari. Horretarako pesak egiten ari naiz

orain, mugimendu azkarragoak egiteko». Modu honetan laburbiltzen du Apeztegiak bere ezaugarri nagusiak eta hobetu beharreko akatsak. Etorkizunerako helburuei dagokienez, «profesionaletan asentatzea eta nik dakidana kantxa gainean demostratzea, oraindik ez baitut lortu. Hortik aitzinerapixkanaka goiti igan. Maila badago baina ez da hain zaila hor jokatzea». ■

► «Baztan eta Malerrekako eskolak elkartzeaz gain Txarutan bitarteko aunitz jarri dituzte guk txapelketak jokatzeko askatasuna izateko. Gu ongi prestatzeko eginahalak egin dituzte»



Baztan Balleko III. mendi ibilaldia burutuko da igande honetan

Mugairi-Mugairi ibilbidea egingen dute mendizaleek, guztira hogeita hemezortzi kilometro osatuz

Bailarako bertze zati bat erakutsi asmoz, igande honetan, ekainak 9, abiatuko da Baztan Balleko mendi ibilaldiaren hirugarren edizioa. Aurten goan, Mugairin abiatu eta Zozaja, Iraperri, Mendiola, San Blas, Sastra, Larratxe, Olari, Abartan, Ziga, Arraioz

eta Larratzun barna igaro ondotik Mugairira itzuliko dira, guztira 38 kilometroko ibilbidea osatuz.

ZORTZI ORDU ETA LAURDEN

Horixe da, Baztango Mendigoizaleak talde antolatzailearen arabera, ibilbidea burutzeko partehartzaileek

beharko duten denbora, banaz bertze. Lehenbiziko talde goizeko 7etan abiatuko da eta parte hartzeko, hamazazpi urte beteak izateaz gain 500 pezeta ordaindu beharko dira. Proba ez da lehiketa izanen eta, honenbertez, ez da inolako sailkapenik ego-

nen. Ibilbidea egingen duten guztiei diploma bana emanen zaie. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko deitu 581279 (Elizabeth, goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara) edo 453060 (Ixabel, arratsaldeko 3etatik gaueko 10etara) telefonoetara.

❖ Mikel Saralegi

harrijasotzaileak munduko errekor berria ezarri zuen maiatzaren 26an Diman, 324 kiloko harria berdindu zuenean. Leitzarrak us-te baino lan gehiago izan zuen eta 22 segundu behar izan zituen harria altxatzeko.

❖ Bortzirietako futbito

txapelketa antolatu du aurten ere Lesakako Bete Gazte elkarteak. Guztira 15 taldek eman dute izena. Hiru multzotan banatu dira eta dagoeneko final laurdenetarako txartelaren bila ari dira.

❖ Baztango atletismo ihardunaldiak

9 eta 14 urte arteko 131 atleta baztandarrek parte hartu zuten maiatzaren 15ean Balleko Kirol Zerbitzuak antolatutako probetan.



Leitzako Aurrera futbol taldeak Nafarroako Preferente mailan jokatu du datorren denboraldian, igoera ligaxkan bigarrena gelditu ondotik. Leitzarrek liga borobila burutu zuten eta beraien multzoko lehenak izan ziren, partidu bakarra galduz. Igoera ligaxkan ez dira hain fin ibili, baina Lanbardo futbol zelaira hurbildu diren jarraitzaile ugariaren laguntzaz bete dute aurtengo helburua, mailaz igotzea alegia. Zorionak!

Hamabostaldiko Jokaldiak



Baztango Atletismo Ihardunaldiak.

131 neska-mutiko elkartu ziren maiatzaren 15ean Lekarozko pistetan egin ziren atletismo probetan. Inportanteena parte hartzea bada, Baztango 9 eta 14 urte arteko atletek ederki bete zuten helburu hori.

Gure Txokoa futbol taldeko jarraitzaileak

Miguel Dagerre entrenatzaileak bere arrenkura azaldu du komunikabideetan Berako taldea animatzera joaten den jende kopuru eskasa dela eta. Aurten egin duten denboraldia ikusita gehiago merezi zuten.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

ALMANDOZ

► **Ekainaren 5etik 9ra** Xehetasunak 21. orrialdean.

ALTZATE

► **Ekainaren 14tik 16ra** Xehetasunak 9. orrialdean.

GASNA FERIA

ETXALAR

► Ekainaren 9an

Gasna eta Artisau Feria. Goizeko 11etan emanen zaio hasiera V. Altxata Gasna Lehiaketari.

ERAKUSKETA

BERTIZ

► Ekainaren 30a bi-

tarte zabalik dago Bertizko Natur Parkeko Gurditegi eta Jauregiko erakusketa aretoan 'Bioaniztasuna' izeneko erakusketa goiz eta arratsaldean.

ELIZONDO

► Ekainaren 1etik

13ra Arizkunenea Kultur Etxean Koldo Azpiazu eskuturagilearen erakusketa. Ordutegia: atsaldeko 7etatik 9etara. Besta egunetan itxia.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Idi Buztana



Pello TXINTXILLA

Huizi Jatetxekoa
•GOIZUETA•

Osagaiak 10 lagunentzat

• 3,5 kg. idi buztan 3 zm.ko pusketan zatitua • 4 tipul haundi • 3 baratxuri ale • 4 azenario • 4 tomate ondu • cognac kopa bat • 2 baso ardo, errioxakoa • Oliba olioa 0,4%koa • Gatza eta irina • Txanpinoiak eta ilarrak •

Prestatzeko modua

Kazula batean baratxuria eta ti-

pulak egiten jarriko ditugu, ongi xehetuak, eta hoiekin batera azenarioak, puskatuak eta torneatuak. Barazkiak eginak daudenean idi buztan zatiak botako ditugu kazulara, lehendik gatza emanak eta irinean pasatuak. Cognac-arekin erreko dugu eta segidan ardoa eta haragi salda edo urarekin estaliko ditugu haragi puskak. Denbora pixka bat

daramanean egosten, tomate puskatuak, txanpinoiak eta ilarrak botako ditugu. Guzia ongi egosteko, gutxinez hiru ordu inguru utzi behar da egosten. On egin.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.600 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 222pzta./kilo
- **Zerramak**: 120-125 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
- **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal Extra 550
1.koa 520
2.koa 500

- **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal Extra 550
1.koa 530
2.koa 500
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze tikiak** (1,5 egun inguruokak):
Nabarrak: urruak 18.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.
Mestizoak: urruak 27.000 eta idixkoak 38.000 Pzta.
- Behi zaharrak**: Behi nabar gizona: 360 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- **Bertako sagarrondoak** 950.
 - **Udareondoak** 950 pzta.
 - **Gereziondoak** 1.050 pzta.
 - **Aranondoak** 1.050 pzta.
 - **Muxika** 880 pzta.
 - **Urritza** 880 pzta



❖ LANDAREAK ❖

- **Porruak** zientoa 400.
- **Tipulak** zientoa 800.

HIRU LAGUNAK TAILERRAK



SEAT AL

☎ eta Faxa: 63 74 36 • Otsango auzoa LESAKA

- **Kotxe, kamioi eta gabarren txapa eta pintura**
- **Mekanika eta elektrizitatea**
- **Pintura kabina**
- **Auto berriak eta erabiliak**
- **Errueda zulatuen konponketa**
- **Kamioien olio aldaketa**

Ezintasuna duten pertsonendako oporrak

Azkeneko urteotan egin den modura, COCEMFE Zerbitzu zentruak oporrak antolatu ditu ezintasuna duten pertsonentzat prezio eta modu egokietan. Tokian tokiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan gai honi buruz behar den informazio guziaz eskeintzen dute.

NORTZUK DIRA JOATEN AHAL DIRENAK

Aukera honetaz baliatzeke honako baldintza hauek bete behar dira:

- %50a edo gehiagoko ezintasuna izatea
- 16 urte baino gehiago izatea, eta 18 urte bete gabek baditu, aita edo amaren baimena, eta azkenik,
- eritasun kutsakorrik ez izatea.

Gurpildun aulkian ibiltzen direla edo %75a baino gehiagoko ezintasuna dutelako laguntza behar duten horiek, laguna eramaten ahal dute. Hauek ere prezio berdina ordainduko

NOIZ	TOKIAK	PREZIOA
Ek.22 - Uztail. 5	Rosas (Girona)	23.000 Pta.
Uztailak 1-14	Salou (Tarragona)	28.000 Pta.
Uztailak 16-29	Sada (A Coruña)	25.000 Pta.
Abuztuak 1-14	Fuengirola (Malaga)	29.000 Pta.
Abuztuak 16-29	Cubellas (Bartzelona)	28.500 Pta.
Ab. 31- Irail. 13	Fuengirola (Malaga)	27.500 Pta.
Irail.21- Urriak 4	Noja (Santander)	22.500 Pta.
Azaroak 1-14	Roquetas Mar (Alm.)	20.500 Pta.
Azaroak 16-29	Benidorm (Alikante)	19.000 Pta.
Abenduak 1-14	Benidorm (Alikante)	19.000 Pta.

Aurten, koadro honetan ageri diren egunetan, toki hauek daude eskaintzan.

lukete.

PREZIOAN, ZER DA SARTZEN DENA

Honen gainean dagoen koadroan ageri dira data eta toki bakoitzera joateko dauden prezioak. Prezio horretan sartua dago bidaia, Madriletik ateri eta autobus egokituan. Eta autobusarekin batera, (***) hotela,

Informazio gehiago eskuratzeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara deitu behar da

ezintasuna duten pertsonentzako trabarik gabekoa, pentsio osoan eta 2 laguntzako logelan.

AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK

Interesatuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo behar dute eta honako agiri hauek aurkeztu:

- Eskaera
- Ezintasun errekonizimenduaren fotokopia
- NANaren fotokopia (baita lagunarena ere)
- Medikuen informea
- Seguridade Sozialeko kartila.

OINARRIZKO
GIZARTE ZERBITZUAK

MENDI IRTEERAK

MUGAIRI

► **Ekainaren 9an**
Baztango III. Ibilaldia.
Mugairi-Mugairi

► **Ekainaren 16an**
Baztango Mendigoizaleak Etxalarrera joan diren dira.

IKASTAROAK

ELIZONDO

► **Ekainaren 17tik 28ra** Sendabellarrei buruzko ikastaroa. Izenematea ekainaren 14a baino lehen egin behar da Kultur Etxean.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Ekainaren 3tik 9ra** Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

► **Ekainaren 10tik 16ra** Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Ekainaren 17tik 23ra** Bera, Ituren, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

MBRA
Berria



ETXEBIZITZAK

BERA. Pisua salgai Iturlandeta 6an (Moliner drogeriaren blokea), 2.A. ☎ 630455.

Borda bat erosiko nuke bere terrenoarekin Malerrek. ☎ 451774.

Borda edo baserria erosi-ko nuke. ☎ 943 - 454448.

Astizko kontzejua: Aterpea alokairuan eman nahi dugu. 40 plaza, taberna-jatetxea. Aralar inguruan, Lekunberriatik 5 km.tara. ☎ 948-604619.

LEGASA. 100 m² erabilgarririk dituen pisua salgai, arras egoera onean. Baratzea eta garajea. Aukera ona. ☎ 234830.

BAZTAN. Borda erosiko nuke. ☎ 306502.

BERA. Pisua salgai. ☎ 630686. Arratsetan.

ELIZONDO. Pisua alokairuan emanen nuke, hilean 20.000 pezeta. ☎ 451518.

DENETARIK

Kartelak, buzoiratzeko pa-perak, bisita txartelak, Faktura taloia... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

Zurgin-erreminten kutxa agertu da Lesakako Legarra papedendaren inguruan. Barnean erremintak ditu, egurrezko kiderretan 'X' bategiz markatuak. Bizkarretik zintzilik jartzeko uhala ere badu. Zeurea baldin bada, deitu. ☎ 637030.

Dutxa-plaka eta **sukalde-rako fregadera** erosiko nituzke, biak portzelana txurrian. Merke, noski. ☎ 451537 (goizetan).

Belarra goititzeko makina merke salduko nuke. ☎ 450998.

Baserriko mogleak, pare-tako erlojuak, sakelekoak,

komedore mahaiak, bron-tze eta kobrezko ontziak, harri landuak, bionboak, pinturak, laminak, kutxak, oheak, arkak... erosiko nituzke. ☎ 943 - 454448.

Kawasaki ZZR 600 motoa salgai. SS-AL matrikuladuna, 20.000 km eta 91. urtekoa. ☎ 631137 (10etatik aitzinera eta otorduetan).

LESAKA. 49,5 m²ko lokala salgai, Bittiria karrikaren 59an. ☎ 637938 (Inma).

BERA. Garajea salgai Legia karrikan. ☎ 630686. Arratsetan.

LESAKA. 58 m²ko lokala salgai. Edozein negozio jartzeko prestatua. ☎ 637453.

LEKUNBERRI. 220 m²ko lokal berria salgai, herriaren erdian. Edozein gisako negoziotarako egokia. Salmenta zuzena. Prezioa eta baldintzak negoziagarriak. ☎ 943.363935.

LESAKA. Bi garage plaza alokairuan emanen nituzke, Albistur 63an. ☎ 637820

LESAKA. 58 m²ko lokala salgai. Edozein negozio jartzeko prestatua. ☎ 637453.

Sukalde kalefaktora salgai, Lakuntza markakoa. Ekonomika bezala erabili daiteke. Labea ere badauka. Prezio onean eta berria dago. ☎ 610961.

Zilarrezko katea eta amnistiaren aldeko kolgantea galdu dut maiatza erdi aldera Berako Eztegarra karrikan. ☎ 631338 (Ainhoa).

150 litroko esne-tankea

salgai, hagitz egoera onean. 40.000 pezeta. ☎ 637236 (arratsetan).

Betaurreko batzuk aurkitu dira Berako Zia auzoan, baserri baten ondoan. ☎ 630116.

Pertsona bat edo bi behar dira Leioan pisua osatzeko. ☎ 630589.

AZIENDAK

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
☎ 627660 LESAKA



Oilagor zakurrak salgai, urtebetekoak. Setter irlandesa eta pointer arrazakoa. ☎ 989.702875 (Alfontso Oiarzabal).

IBILGAILUAK

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko autoetan aukera zabala: Ford Fiesta NA-AF 27.000 km, Golf Turbo Diesel, 2 Suzuki labor eta bat luzea, Land Rover...

Renault 11 diesela, NA-P matrikuladuna salgai. ☎ 510460.

Peugeot 309 diesela, NA-AD matrikuladuna salgai. ☎ 510558.

Cota 309 motoa salgai. ☎ 630686.

Rieju MR 80 motoa salgai. Egoera onean ☎ 450321.

Lada Niva SS-AS matrikuladuna salgai. ☎ 631114

edo 943.218583.

Peugeot 205 SRD salgai, SS-X matrikuladuna, 5 ate, gupil berriak, txapa eta motorra primeran. Beti garajea gordea. Prezio onean. ☎ 943.283431 (gaueko 8etatik aurrera).

Audi **VW** **SAMPI ARAGON**

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

LANA

Neska euskaldun batek lan eginen luke haurtzain edo etxeko lanetan. Espe-rirentziaduna. ☎ 637492 (Amaia).

22 urteko neska eskaintzen da haurrak zaintzeko. ☎ 610625 (Itziar).

Udan, neska batek lan eginen luke Beran haurrak zaintzen. ☎ 630516. Maitane.

Mikrofusio tailerraren arduradunarekin harremanean jarri nahi nuke. ☎ 452360-393005.

Neska batek udapartean lan eginen luke Lesakan haurrak zaintzen. ☎ 637179 arratseko 8etatik aitzinera. Amaia.

Berako neska batek udan haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 630153 (Amaia). Arratsetan.

AGURRAK

Arizkungo Ainhoa Iturraldi zorionak bere urtebetzean (ekainak 17) eta muxu haundi bat Arraiozko bere bataioko amatxi eta famili guziaren partetik.

Arraiozko Garikoitz Larretxeari: bere urtebetzean (ekainak 18) zorionak eta sei muxu haundi bere aita, ama eta Asier anaiaren partetik.

Elizondoko Maria S.ri: ez erre horrenbertze, gaztea zara eta bizitza polita da. M eta X.

Elizondoko Itziar Irisarri zorionak zure urtebetetze egunean (maiatzak 23). Ea noiz ospatzen dugun. Urdazubitik Alizia.

Goizuetako Iratiri: zorionak zure lehen jaunartze-arengatik. Bazkarira joaterik izan ez banuen ere asko oroitu nintzen zurekin. Muxu haundi-haundi bat eta eskuminak Juleneri. Lesakako Aitor lehengusua.

Arraiozko Idoia eta Asiereri zorionak. Zuen urtebetetzeak pasatuak dira bainan ikusten duzuen bezala oroitu ginen. Zuen lagunak.

Urdazubiko Alizia Olaizolari: Zorionak ekainaren 2an. Ea ongi ospatzen duzun. kasu txanpainarekin. Zure lagunak.

Agurne Oronoz-i: Zu ere oso guapa zara. Joseba O.

ttipi-ttapa

Gida Komertziala 96

Elektrizista baten bila zabilta?
Gida honetan topatuko dituzu inguruko guztien telefonoak.



UDABERRIKO KULTUR EGUNAK ETXALAR

Ekainak 2, 8, 9 eta 16

Ekainak 2

Igandea

Trokolo Antzerki Taldea
12etan "Liburulariak" antzeslana

Ekainak 8

Larunbata

Eskulan Erakusketa
Herriko emakumeek egindakoak

Ekainak 9

Igandea

ARTISAUAK eta
GASNA FERIA

11etan V. Altxata Gasna Lehiaketa.
2etan bazkaria.

Bertsolariak:

*Xabier Amuriza, Manolo Arozena
eta Jokin Sorozabal*

Egun osoan,

gasnak eta bertako produktuak
salgai egonen dira.

Horretaz gain, herriko emakumeek
egindako eskularen erakusketa zabalik
egonen da egun osoan.


Ekainak 16

Igandea

Eskolako haurren eskulan erakusketa
VII. Ipuin Topaketa
2etan Bazkaria
2,30etan Azkona Taldearen emanaldia

Antolatzailea: ALTXATA Kultur Elkarteak
Laguntzailea: Etxalarko Udala eta Eskola

GASNA ETA ARTISAUAK FERIA



ETXALARREN
EKAINAREN 9AN

V. ALTXATA GASNA LEHIAKETA

**BERTAKO GASNA ETA
PRODUKTUEN SALMENTA**

- ARTISAUAK •
- BERTSOLARIAK •
- TRIKITILARIAK •
- HERRI BAZKARIA •

Laguntzailea:




NAFARROAKO RURAL KUTXA

MUEBLES
METS
mobleak orokorreak
 BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

**SUKALDE ETA
 BAINUETAN
 AUKERA ZABALA**

*Ez galdu
 denborarik!!*



Haize Egokitua dohainik edo 150.000 Pta.ko deskontua

Volkswagen-en badakigu zein garrantzitsua den zure autoa zuretzat. Badakigu zure eremua dela, zure bizi eremua, zure denbora. Seguraski benetan zeurea den gauza bakarra. Eta badakigu edozein autok ez dizula balio.

Horregatik sortu dugu Poloa. Eta horrexegatik aukeratu duzu zuk. Gustoko duzulako eta ekipamenduari dagokionez bestek ematen ez dizutena ematen dizulako, berekin fida zaitzkeelako, zure sakelaren neurriko prezioa duelako, bere barnean eroso eta

seguru sentitzen zarelako. Zure Poloak eta zuk bide luzea duzue aurrean.

Poloak 1.259.000 Pta. aitzin

SAMPI ARAGON 
 Leitzako errepidea • ☎ 450354 / 450759
 D O N E Z T E B E

